

Espainiako Mendi Lasterketa Txapelketan podium bikotxa lortu dau Onditz Iturbe igorreztarrak

Bagilaren 8an jokatu zan Canfranc-en (Huesca) Mendiko Lasterketetako Espainiako Txapelketea eta Onditz Iturbe izan zan garaile, Munduko Txapelketarako aurre sailkapenerako txartela lortuz. Urri lehenengoan leku berean jokatu da Munduko Txapelketarako txartelak egozan jokoan eta Iturbek lortu dau txartela, domina bi irabazi ditu-ta. Aurreko egunean bigarrena izan zan igokera bertikaleko proban. **15. orrialdea**



Bedia, Ubide, Arantzazu eta Diman jaiak

Bedia eta Ubidek sanjuanetan ospatuten ditue herriko jaiak; Arantzazuk eta Dimak, barriz, sanpedroetan.

Gainera, udako solstizioa ospatuteko, San Juan sua isiotuko da Arratiako auzo ugarian bagilaren 23ko gauean.

Bedia eta Ubideko jaiak hilaren 20an hasiko dira eta, 23an, gaua ondo sartuta dagoanean isiotuko dabe sua eta inguruan ibiliko dira herrikoak kantuan eta jantzan. Arantzazun eta Diman barriz, hilaren 26tik 29ra ospatuko dabez sanpedroak. Arratians eta Rebel Noise taldeen kontzertuak egongo dira Arantzazun eta, beste batzuen artean, Suger, Alarma Morea, Sustrai Berriak, Nevadah eta Ruper Ordorika izango dira Diman. Umeentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak eta kale ikuskizunak be ez dira falta herriko jaietako programetan.

Igorreko San Juan auzoan eta Zeanuriko Altzuaga auzuneetan be, besteak beste, jaiak dira sanjuanetan; eta Zeanuriko Undurragan sanpedroetan. **5., 7. eta 9. orrialdeak**



LEMOA

Izen handiko artistek mural bi egin ditue Lemoan

Margolan handi bik koloreztatzen dabe Lemoako sarrerea. Medianeras bikoteak eta Lian Monserratek eta Jay Gilleard-ek egin ditue. Patroi euskaldunak jantzitako atsoa egin dau Medinerasek, Lianek barriz Arlanpe kobazuloa irudikatu dau. **10. eta 11. orrialdeak**

AREATZA

Areatzako Danborradak 50 urte

1975eko abuztuaren 30ean egin eban Areatzako Danborradak lehen desfilea. 50 urte pasau dira eta 50. urteurrena ospatuteko jaia prestatu dabe bagilaren 21erako, tanborradatik pasau diranak batzeako helburuagaz. Jaia eguerdian hasi eta goizaldean amaituko da. 130 lagun inguruk joko dabe tanborra egun horretan. **12. orrialdea**

ZEBERIO

Estaduko droga laborategi handienetakoa desartikulau dau Polizia Nazionalak Zeberion

450 kilo speed, hau ekoizteko materiala, 140 marihuana landare eta 10 kilo kukulu konfiskau ebezan Zeberion eta Igorren be egin eben miaketa bat.

Hilaren 5ean, Polizia Nazionalak Zeberioko etxe bat miatu eban, Polaris operazioaren barruan, speed laborategi bat topetan. Etxean sartu eta oin arte estadu mailan aurkitu dan anfetamina sulfatoa ekoizteko laborategi handienetakoa topau eben. **6. orrialdea**



Ibone B. Martinez Barrenetxea

Hortz-higienista edo klinika laguntzailea behar da 18 urte baino gehiagoko garapena dauan Lemoako Hortz Klinikako parte izateko. Lanaldi osoa, jarraitua edo zatitua asteko egunaren arabera. Baldintza eta lan giro onak. Era guztietako hortz tratamenduak eta odontologia holistikoa egiten doguz.

imblemoa@yahoo.es · 639 376 875 · Whatsappik ez

Estaziñoa, 1
48330 LEMOA · Bizkaia ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA



LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccionesekin.com

Literatura txokoa

MANERAS DE AMAR (I)

Maneras de amar (Maitatzeko moduak) Amir Levine eta Rachel Heller-ek idatzitako liburuak atxikimentu teoria psikologikoa geure bizitzan zelan ezarri eta egoitzeko bidea eskaintzen deusku. Liburua, modu legalean, debalde lortu daiteke interneten bidez. Ingeleseko originalak *Attached* (atxikituia) titulupean argitaratu zan eta azpitoluak holan dino: "Erpai (edo ansiedade handikoa), sahiesle (ebitatiboa) edo segurua zara? Zelan helduen atxikimentu teoriak lagundu —eta mantendu— ahal dau maitasuna".


Atxikimentu teoria psikologikoa John Bowlby psikiatra britaniarrak eta Mary Ainsworth psikologo kanadiarrak sortu eben eta gizakien arteko erlazioak azaltzeko eta

ulertzeko marko eta zutabea eskaintzen dau. Nahiz eta hasikera baten komunidade zientifikoak uko egin eutsan teoria honeri, gaur egun umeen eta helduen arteko harremanak azaldu eta ulertzeko gehien erabilten dan teoria da.

Atxikimentu teoriaren arabera, bizitzako lehenengo urteetan garatzen da gure atxikimentu eske- ma edo eredua. Ered hori gure zaintzaileenganako (normalean gure amarenganako) atxikim- tuaren arabera moldatuko da. Ainsworth-ek esperimentu batzuk egin ebazan, non amak ume txi- kia bakarrik ixten eban. Batzuetan umea segiduan hasten zan ne- garrez eta ama bueltatzean pozik agertzen zan. Tipo hau ohikoena

zan eta mota honeri "atxikimentu segurua" deitu eutsan. Bigarren taldean, umeak ez eban negarrik egiten baina oso urduri ipinten zan. Eta negarrez hasten zan ama itzultzean. Mota honeri "erpaia" edo "ansiedade handikoa" deitu eutsan. Eta baegoan 3. tipo bat: umeak ezer gertatu ez balitz lez jokatzen eban eta ama buelta- tzean be bardin: bere jolasean ezer gertatuko ez balitz moduan agertzen zan.

Josu Ricoy



Amir Levine eta Rachel Heller
Maneras de amar
Books4pocket, 2016
288 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 16tik 22ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano. (14-20)

Bagilaren 23tik 29ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (21-27)

Bagilaren 30etik garagamilaren 6ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (28-4)

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeke.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXX).
Kale berbakunea sustatu guran

PAELLA TXAPELKETEA

- Zer **jak** ba?
- Hemen **gabizek**.
- Zelan **joazak** Igorreko jaiak?
- Ba sano ederto hi! Lehengo zapatuan Paella Txapelketea irabazi **giñoan**.
- Ezin **leitikok** izan! Bai, ala?
- Holantxik **dok** ba!
- Zorionak, hi! Noz joango **gozak** hire etxera andrea eta biok txapeldunen errezetea probetan? kar, kar, kar.
- Etorri **hadi** gura **dokenean**, **badakik** gure etxean ondoetorria **hazela** beti-ta!
- Eskerrik asko, hi! lagun ona **haz**, gero!

ERETXIA

Bizikletaz bidaiatzea: astiro egiten dan bidai atsegin eta feministea

Bizikletan bidaiatzea munduan egoteko modu bat da; erritmoa jatsi, arnasea sakon hartu, prisea eta arrapalada alboan itxi eta beste modu baten begiratzera konbidatzen gaituana. Ez dira milaka kilometro egin behar, ezta ziklista aditua zertan izan be; behar dan bakarra da, ahal dozula sinistutea (badakigu ezusteei konponbideak emoten adituak garala), mobiduteko, eta haizea arpegian izateaz gozatuteko gogoia izatea eta alforjetan beharrezkoa dana bakarrik sartzea.

Sinpletasunetik eta erritmo naturalen errespetutik sortutako bidaiatzeko modu bat da hau, lurretik eta zeharkatzen dogun ingurunetik hur manteniduten gaituana. Pedalei eragitea, planeteari erasorik egiten ez deutsan mobiduteko modu bat aukeratzea da, natureagaz hartuemon zuzenera konbidatzen dauana eta, bide batez, andron autonomia eta espazio publikoa hartzeako, gorputzen eta bideen gainean ebazteko eta askatasunez biziteko gaitasuna aldarikatzen dauana. Pedalei eragitea, ekintza feminista bat da.

Pedalei prisa barik eragitea: astiro joatearen artea

Bizikletaz bidaiatzearen gauzarik politenetako bat da, dana beste erritmo baten gertatzen dala. Ez dago estutasunik. Gorputzaren indarragaz egiten da aurrera, paisajeari lasai begiratzen jako, txorien txioak entzuten dira, lur bustia usaintzen da edo eguzkia loren gainean. Geldialdi bakotzak topagune baterako aukerea emoten dau eta bide zati bakoitza norberaren lorpen txiki bat da.

Bizikleteak ez dau kutsatzen, ez dau zaratarik ateraten eta aldean beharrezkoa bakarrik hartuta ibili behar da. Garraiobide jasagarria eta merkea da, gure egunerokotasunaren prisatik ateraten gaituana.



ESTHER MORALES
Feministea

Bidai egun bakotxean, benetako preminetan zentretan dogu gure energia: joatean, jatekoan, lotarako lekuan eta atseden hartzeako eta aisialdirako denporan, hain zuzen be.

Ekipajea aldean eroan behar dogunez, benetan garrantzitsua zer dan bereizten ikasten dogu, ezin da larregi eroan, eta eroan ezker, gure gorputzek igarriko dabe. Hainbeste behar dogu bidaiatzeko? Ondo planifikauta, bidaiatzeko modu sano merkea izan daiteke eta lo egiteko lekuaren gastua izango da handiena.

Gure bidea be bada

Denpora luzean, zikloturismoa lotuta egon da gizonezkoen irudiaz: muturreko erronkak, distantzia handiak, abiadurea... Baina gero eta gehiago gara geure bideetan pedalei eragiten deutsegun andrazkoak. Egin geinke eta egitea askatasun eta autonomia ekintza bat da.

Zelan mobidu aukeratzea, espazio publikoa hartzea, geure seme-alabakaz bidaiatzeko antolatzea, zaintzeari, norberaren erritmoari eta hartu-emonei lehentasuna emotea... hori dana jokoaren arauak aldatzea da. Mundua esploretako baimena batzuek baino ez daukiela ideari desafiotea ausardiaz eta maitasunez. Geuk be egin geinke. Eta geuk be egiten dogu.

Eta, jakina! Mekanikea ikasiko dozu. Ahal izan ezker, gure bizikletetako zulatutako gurpilak, balaztak eta desbideratzaileak konponduten doguz. Eta gure umeek egiten dogula ikusten dabe.

Umeakaz bidaiatzea: ziklistamoa eta amatasuna

Zikloturismoa umeakaz egitea oso esperientzia polita da. Txiki-txikitatik ikasten dabe bidaiatu ahal dala prisa barik eta gorputzek zaindu beharreko erritmo bat daukiela, baita geratu, behatu eta entzutea inportantea dala be.

Guk ibilbide laburrak antolatuten doguz, egunean, 25 eta 40 kilometro artekoak, bide berde edo bide-

gorrietatik. Holan, premina guztiak beteten doguz: goizean pedalei eragin eta gero astia dago bazkaldu, kanpin-denda montau edo ostatuko espazioa antolatuteko, atseden hartu eta olgetan ibilteko. Guk beti kanpina aukeratzen dogu: erosoak dira, irisgarriak eta batez be, umeei beste umeen lagun egiteko eta alkarregaz olgetako aukerea emoten deutsee. Eurek disfrutau egiten dabe eta geuk be bai.

Holan bidaiatzean, "kapritxoak" murriztu egiten dira, ez dagoalako lekuri behar dana baino gehiago eroateko. Behar dana bakarrik eroaten dogu: jateko zeozter, erropea, erremintak... alforjetan sartzean dana. Eta hau oso ikasgai ona da, aldean eroan ahal dozunagaz bidaiatu ahal zara, ez da gehiagorik behar bidez disfrutetako. Bazkalteko garbantzuak egongo dira, eta afaltzeko bazkarian sobrautakoak.

Umeakaz bizikletan bidaiatzea sano aberasgarria da. Bidean, oztopoak kudeatzen ikasten dabe: nekea, aldapa gogor bat, bat-bateko haize aldaketea edo espero ez zan euria. Zoritxar txiki honeek aukera bihurtzen dira erresilientzia, moldakortasuna eta konfiantzea garatzeko. Gainera, zikloturismoaren erritmo lasaiak ingurune aproposa sortzean dau berba egiteko, pentsamentuak partekatzeo, abesteko, galderak egiteko edo inguratzen gaituana begiratzeko. Astia dago. Astia dago gelditu eta arbol bateri begiratzeko, abereak agurtzeko, haizearen soinua entzuteko edo bidean harriak jasoteko. Astia dago presente eta alkarregaz egoteko.

Alkarregaz bidaiatzea, maitasun ekintza bat da

Bidaia mota honen helburua ez da lehiatzea, ezta urrunago ailegetea be. Helburua bidaia konpartidutea da. Geure buruagaz, ondoan doazanakaz, geugaz datozen umeakaz eta inguratzen gaituan munduagaz. Helburua, momentuak sotzea da, bidez disfrutetea eta geure moduan egin ahal dogula, ospatzea.

Bizikleta gainean mundutik ibiltea zeure indarrakaz, seme-alabakaz, konfiantza, samurtasun eta askatasun ekintza bat da. Eta feministea be bai, akordura ekarten deuskulako gure ebatziak inportanteak dirala, gure gorputzak balekoak dirala eta mundutik ibili daiteela gureago dan beste erritmo baten.



LUMATUTEN



ZEFE ZIARRUSTA

Euskal Pilota Selekzioa & Zazpiak bat

Zazpi herrialdez osotutako herria da Euskal Herria, hizkuntzea, kulturea eta araubide propioa eta berezituak garatu izan dituena. Egun, herri nazino aitortza barik eta banaketa administratiboez gainera, estatu biren menpe.

Dudarik ez, bidea pausuz pausu bete eta elikatu behar da helburura heltzeako, zentzu horretan ondoetorria Euskadiko Euskal Pelota Selekzioari, hemendik aurrera, Euskal Selekzio modura eta modu ofizialean nazinoarteko txapelketetan parte hartzeako aukerea izango daukalako.

Neurri baten pozik eta harro sentiduten gara gure kirolariak ordezkaturik izango garalako nazinoartean.

Baina ez gagoz asetuta, herri baten nahia, desioa eta ametsa ez dalako osotasunean egia bilakatu. Bai, gure kirolariak

gure ordezkariak izango dira munduan, eta gure identitatea eta nortasuna zabalduko dabe, baina Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Behe eta Zuberoako euskal pelotariak, egun, ezin dabe parte hartu onartutako Euskal Selekzio honetan.

Non gelditzen da gure anai-arreben, ahizta-neben borondatea? Euskal Herria osotuten daben zazpi herrialdeek osotutako benetako selekzioa ofiziala izatea gura eta behar dogu lehen baino lehen, hori da-ta herri hau osotuten dogun euskal herritar gehienek nahia, desioa eta ametsa. Ekin dagiogun, jarraitu dagigun zubiak zabalduz, bideari. Ahaleginak batuz, alkarlanean, alkarregaz, zazpi herrialdeak kohesionatuten, etorkizuna eregiten.

ZERTZEAN



Errakuntza

RAFA UGALDE

Erri bilakatze bidean ez dakit besterik oinezean baino, ez naiz ezertan aditua, ez dut gainerakoek ziurtasun osoz adierazten duten irizpide sendorik. Arrunta naiz. Ate bat ireki, edo bide berriren bat azaltzen denean, ibilian abiatzen baino ez dakit, nora naroan asmatu ezinik, zalantzi, joan ez joan, beldurrez, aurrerantz egitean asmatu ote dudan, baina bideari ekiteko adierazten didan zerbait azaltzen zait barrenean; arrazonomenduari uko egin eta neure gogoan errorik ez duen ezaxol antzeko borondate batek erakusten didan bideari ekin.

Eta askotan lotsarazten nauen erabateko

errakuntza izan da, eta ondorioz, okerra bide horretatik eratorritako guztiak, sentipenak sasisentipen, maitaleak erabilgarri huts, lagun berriak iragankor. Baina ibilian abiatze hutsak, ezjakin, xederik gabe, plazerra eragiten dit eta errakuntza bidezko jakituriak bizialdiko ibilbideak leuntzen dizkit. Itzulbidean sarritan bakar eta lotsor, lotsarazten nauten beldurrentzako ehorzleku bila, ezjakin zer nahi dudan, arean jakintsuago zer ez dudan nahi, eta betiere zain zein bide berri ote den irekiko.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bilbo, 1980ko bagilak 28. Harrotasunaren manifestazioaren ostean, krabelinak saltzean gagoz kolektibokook, kartelak eta pankartak egiteak kostau dauan dirua berreskuratzeko. Aguretxo bat hurreratu jata eta ahopeka, galdetu deusta: "dirua kausarako da?". Eta armairuan zirritiku bat zabalduz, krabelin bat erosi dau. Ezin ebitau pentseta gaztaroa eta helduaroa frankismoan bizi izandako gizon harek zenbateko mespretxu, errepresino eta indarkeria sufri-duko eban bere bizitzan zehar. Gazteok, sasoi barriak dirala jakitun, egun argitan eta aske biziteko esperantzea daukagu.

Igorre, 2025eko bagilak 12. Armairutik kanpo dagoan mutil gay gazte bat kaletik doa bakarrik. Nerabe kuadrilla bat, ehiza txakur talde bat lege, irainka, mehatxuka eta segika hasi jako. Iges egitea lortu dau gazteak. Ebiteazina da pentseta, ea mespretxu, errepresino eta indarkeria bizitza bat izango dauan aurrean, armairu barruko bizitza bat. Ala aske izatea lortuko dauan. Tristeza litzateke gazte hori zaharra danean, bagilaren 28ren baten, modu erdi klandestinoan krabelinak saltzean dabilen baten bateri ahopeka galdetu behar izatea ea kausarako dan holan batutako dirua.

Burrukea ez da amaitu.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

AREATZA/ARTEA

Aldaketak egin ditue Areatza eta Arteako konsultategietan

Erredakzinoa

Osakidetzak aldaketak egin ditu Areatza eta Arteako konsultategietako ordutegietan. Bagilaren 2an sartu zan indarrean ordutegi barria. Horren arabera, konsultategietako mediku zerbitzua txandakatu egiten da eta herrian toketan dan egunean, ordu gehiago ditu zerbitzuak. Guztira ordu gehiago dira, baina egun batzuetan herriz mobidu behar dira pazienteak zerbitzua izateko. Areatzako konsultategian, medikua martitzen, eguazten eta barikuetan egoten da, 08:00retatik 15:00etara arte. Astelehen eta eguenetan beraz, billaroztarrak Arteara joan behar dira zerbi-

tzua behar izan ezker. Erizaina barriz, martitzen, eguazten eta barikuetan egoten da, 08:00retatik 15:00etara, eta astelehen eta eguenetan 08:00etatik 10:30era. Artean, medikua astelehen eta eguenetan egoten da, 08:00reta-

tik 15:00etara. Beraz, gainontzeko eguenetan Areatzara joan behar dira medikua behar daben arteaztarrak. Erizaina barriz, astelehen eta eguenetan 08:00retatik 15:00etara egoten da eta martitzen, eguazten eta barikuetan, 12:30etik 15:00etara.



LEMOA

Udalari etxe eta bizi baldintza duinak eskatu deutsiez Agarreko bizilagunek

Maiatzaren 16an Iberdrolak argia moztu eutsen eta bagilearen 4an barriro. Bizilagunek euren egoerea salatu eta Udalari bizi baldintza duinak bermatuteko, errolda eta etxebizitza kontratua lortzean lagunduteko eskatu deutsie, ur eta argindar kontratuak egin ahal izateko. Auzoan, 30 ume inguru bizi dira, baita medikazinoa behar dauan jentea be.

Erredakzinoa

Urteak dira Agarreko etxe hutsetan bizilekua topau ebela hainbat familiak, bikotek eta bakarka bizi diran gazte zein nagusik. Bagilaren 5ean egindako prensa agerraldi baten, bizilagunek, euren etxebizitza egoerea erregularizetan saiatu dirala azaldu eben. "Gizarte zerbitzuetan laguntza eskatuz hasi ginan, etxebizitza batera sarbidea errazteko, baina bidea antzua izan da, ez Etxebiden ez gainontzeko baliabideetan, ez dago guretzako etxerik. Honen aurrean eta gure egoera ekonomikoa hobetu ahala alkiler libre-etan saiatu izan gara, baina ez dago etxebizitzarik, gitxiago persona errazializaduentzat. Azkenik, hemen bertan alkilerria lortzean saiatu izan gara, horretarako etxeen jaubeagaz (Cementos Lemoa) bilerak eskatuz behin eta barriro, baina ez gaitue hartu. Honen aurrean Lemoako Udalari eskatu deutsagu laguntzea, enpresa eta gure artean zubi lanak egiteko, baina ez dogu laguntza-



rik lortu". Eta egoerea larritu egin zan argindarra moztu eutseenean. "Iberdrolaren ebatzi horretan udalak ez daukala zer esan, ez zer eginik esan euskuen; baina gizarte zerbitzuetako teknikaria egoera hobetzen saiatuko zala". Dana dala, laguntzarik ez dala heldu eta babes barik sentiduten dirala azaldu eben. "Bildurrez bizi gara, etxebizitzaren egoera oso

prekarioa da eta etxea itxi arazoteko mehatxua, konstantea". **Osasun eta segurtasun eza** Argindar barik ezin dira seme-alaben biberioak edo janarik prestatu, eta, hozkailu barik ezin dira botikak ondo mantendu be. Botikak eguneroko hartu behar dituan jentea be bizi da han. Segurtasuna be ezin dala bermatu eta ez dabela "iluntasun honetan bizi gura" salatu dabe.

UBIDE

Jaietan plazan arbola ipinteko tradizinoari eutsiko deutsie ubideztarrek

Arbolearen bila joango dira basora jaietako lehenengo egunean eta plazan ipinitakoan, hasiko dira herriko jaietako bost egunak. Musikeari jagokonean, North Summer, Lionels, Altxa Porru erromeria eta Aire Ahizpak egongo dira; baita DJak be: MC Mera eta DJ Kaktus, hain zuzen be.



Erredakzinoa

23:00etan, Altxa Porru erromeria.

Antzerkiak, herri afariek, kuadrillen olinpiadek, jantza erakustaldiek eta jarduera askok osotuten dabe jai egitaraua. Arboleagaz batera, San Juan bezperako sua da jaietako beste protagonisteak. Izan be, tradizinoari lotutako elementuak izateaz gainera, karga sinboliko handikoak dira. Eszenalekua muntatzea eta desmuntatzea be jai egitarauan dago eta herritarren artean egiten da.

Bagilak 20, barikua
17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbolea ipini.
19:30etan, Burrumba elektrotxaranga.
21:00etan, afari trukea.
22:00etan, kontzertuak: North Summer eta Lionels.
24:00etan, DJ MC Mera.

Bagilak 21, zapatua
11:00etan, puzgarriak.
12:30etan, Otxandioko Urduri jantza taldea.
17:30etan, Ubideko Olinpiadak.
21:00etan, herri afaria moztortuta.

Bagilak 22, domekea
11:00etan, *Buruarin* tailerra.
13:00etan, Buruarinen kalejirea.
17:30etan, pelota partiduak: Emakumezkoen San Fermin Torneoa (Ados Pilota) eta Aurrekoetxea eta Emaldi vs Beitia II eta Erkiaga II.
19:30etan, kontzertua: Aire Ahizpak.
20:30etan, parrilladea.

Bagilak 23, astelehena
18:30etan, Pikor Teatro konpainiaren *Atsoak dantzatzan* antzezlanak.
20:00etan, herriko gazteen jantza ikuskizuna.
23:00etan, sua.

Bagilak 24, martitzena
Meza ostean, barauskarria trikiti-xea eta panderoagaz.
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketa arina.
18:00etan, umeentzako jantzal-dia DJ Kaktus-egaz.
20:00etan, atzen traka.

Bagilak 25-26, eguaztena eta eguena
17:00etan, eszenalekua desmontau.

ARANTZAZU

Arantzazuko HAPO egiteko parte-hartze prozesua zabalik dago

Bagilaren 4an egin zan aurrerakinaren jente-aurreko aurkezpena eta horregaz zabaldu zan parte-hartze prozesua.

Erredakzinoa

Indarrean gitxienez 8 urte, bai-na askotan 20 urte be indarrean egoten dan dokumentu honen sortze prozesuak, interes handia sortu eban Arantzazuko etxe eta lurretako jaubeen artean, eta Kultur Guneko aretoa bete egin zan aurkezpen egunean.

Asier Aburto Arantzazuko alkateak azaldu eban, HAPO barria mar-tan ipinteko errazoi bi egon dira: "bata, gaur egungo arau subsidi-rioak guztiz agortuta dagozalako eta bigarren, 2006ko legedira aspaldi egokitu behar zalako". Oingo fasea eztabaidarako fasea dala esan eban Pablo Maguregi, HAPOa egiten da-bilen Hiritek enpresako arkitektoak, "herria zelan gura dan garatu, ezta-baidatzeko" hain zuzen be. Ostean, hasikerako dokumentua onartuko da eta orduan alegazioak egin ahal izango dira. Atzenik, behin betiko dokumentua onartuteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena da.

Eztabaidatuteko dan Aurrera-kinak, lege esparrua, lurzorua

azterketea eta indarrean dagoan plangintza kontuan hartuz, hiru alernatiba proponiduten dauz: zero hazkundearen proposamena, hazkunde moderaduko proposa-mena eta gehieneko hazkundea-ren proposamena. Planoak, udal webgunean ikusi daitezke.

Arantzazu
Arantzazuk, 3,54 km²-ko azale-rea dauka eta 418 biztanle ditu.



Bertan, 198 etxebizitza dagoz eta etxebizitzaren eduki erregimenari jagokonean, Arratian jaubetzaren kuota handiena (%91,7) daukan herria da. Lurzoruari jagokonean, oingo araudiaren arabera, lurzo-ru ez urbanizagarria %93,3 da; egoitzetarako lurzorua %2,76 eta jarduera ekonomikoetarako %0,92; beste %3,02a sistema orokorren lurzorua da, Eustat-en datuen arabera.

ZEBERIO

Zeberion droga laborategi bat desegin dau Espainiako Poliziak

Erredakzinoa

Bagilaren 5ean izan zan. 450 kilo speed atzeman ebezan, 500 litro prekurtsore, 140 marihuana landare, 10 kilogramo marihuana kukulu baino gehiago, 7.500 euro eskudirutan, bost ibilgailu eta arma luze bat, baita laborategian drogea ekoizteko erabilitako tres-nak be. Atzemandako drogeak, merkaduan 14 milioi euroko balioa izan ahalko eban, Marisol Garmendia Espainiako Gober-nuaren Euskal Autonomia Erkide-goko ordezkariaren arabera.

Sei persona atxilotu ebazan po-liziak operazino honetan, erakun-de kriminaleko kide izatea eta droga trafikoa egotzita. Zeberion bakarrik ez, beste lau miaketa egin ziran, eta honeetako bat Igo-rren izan zan.

Atxilotuetatik hiru espetxera-tzeko agindua emon eban Ins-trukzinoko Bilboko 1 zenbakidun Epaitegiak: erakundeko burua,



Zeberion atzemandakoa.

sukaldaria eta laborategi horre-tako bizilagunetako bat. Erakun-de kriminaleko liderra enpresari arrakastatsua da, hainbat sektore-tan enpresak dituana.

Ikerketea igazko zemendian

hasi zan, agenteek Zeberioko landa eremuko familia bakarreko etxebizitza baten, mobimentuak eta laborategi klandestino bat egon eitekeala antzeman ebe-nean, polizia iturrien arabera.

ARRATIA

Bilbon izandako erailketa matxista bikarioa salatuteko elkarretaratzea egin zan Igorren



Erredakzinoa

Bagilaren 2an, izan zan elkarreta-ratzea Arratiako mobimentu femi-nistek deituta. Maiatzaren 30ean, Bilbon, 43 urteko gizon batek 13 urteko alabea hil eban eta an-drea zauritu. Ertzaintza ikertzen dabil indarkeria bikarioa ete dan. 2003tik hamahiru adingabe hil ditue gizonezkoek Euskal Herrian indarkeria bikarioa erabiliz, aurt-en-go laugarrena izan zan Eva.

"Oingoan adin txikiko neska bat izan da eta horrek bereziki larria egiten dau kasu hau. Zalantzarik ez dogu: biolentzia bikarioa be

indarkeria matxistea da" azaldu eben konzentrazinoan. Indarkeria matxistea egiturazkoa dala eta bi-zitzako esparru guztietan eragiten deutsela andrei, neskei eta genero disidenteei be esan eben. "Prest gagoz erantzuteko eta Euskal He-rriko edozein txokotan gertatzen diran hilketa matxista guztiak sa-latzeko. Prest gagoz erakundeei eraso matxista bat gertatzen dan baktxean jagokien ardurea hartu dagiela esateko eta indarkeria mat-xistearen konplize diran guztiei, gizonei batez be, ardurak exijidu-teko. Prest gagoz autodefensa fe-ministearen bidean jarraituteko".

AREATZA/LEMOA

Lemoako ugerlekuak zabalik dagoz eta Areatzakoak zabaltzear



Lemoako ugerlekuak.

Erredakzinoa

Bero dagoanean freskaldi bat hartzeako kanpoko ugerlekuak aukera ona eskaintzen dabe ur-daro Areatza eta Lemoako udako ugerlekuak. Lemoakoak bagila-ren 9an zabaldu ziran eta Area-tzakoak hilaren 21ean zabalduko dira. Hiru hilebetez egongo dira zabalik, Areatzakoak urri lehenen-goaren 14ra arte eta Lemoakoak 7ra arte.

Ordutegiari jagokonean, Le-moan 11:00etatik, 19:30ak arte egon daiteke uretan eta Area-tzan, 11:00etatik 20:00etara da ordutegia. Sarrerren prezioek kon-tuan hartzean dabez personon egoerak. Lemoan, kontuan izaten dabe personea lan barik dagoan, dibersidade funtzionala daukan edo adina; Areatzan barriz, mer-keago dira sasoi osoko sarrerak, familiakoak eta erabiltzaileen edadea be hartzean da kontuan.

ARRATIA

Arratia BHIk Egin eta ekin
Lehiaketako Batxilergoko
lehen saria irabazi dau

Erredakzinoa

Maiatzaren 30ean, Arratia BHI-ko batxilergo 2. mailako Egin&Ekin Lehiaketako saria jaso eben BEC-en, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. Lehiaketeak, kultura ekin-tzailea sustatzea dauka helburu eta aurten bere XVI. edizinoa izan dau. Guztira, 239 negozio plan aurkeztu dabez Bizkaiko 39 ikas-tetxetako 1.464 ikaslek.

Arratia BHI-k haimaka negozio plan aurkeztu ebazan: zortzi DBH laugarren mailako kategorian, eta hiru II. Batxilergokoan. Atzen kate-goria honetako Herribas proiektua izan zan lehiaketan garaile, lehe-nengo saria Arratiara ekarri. Proiektuaren sortzaileak, Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak ikasgaiko, II. Batxilergoko hiru ikasle dira: Jare Iza, Araitz Muriel eta Oier Rodrigo. "Ikasturte osoan ekintzailetzea eta enpresa mundua zer dan ikasteko aukerea izan dabe, Bizkaiko enpre-sa desbardinak bisitauz eta hainbat ekintzailearen testigantzak entzun-da, ikasitakoa praktikan ipini dabe euren proiektuan" azaldu deusie

BEGITURI Institututik. Proiektuaren arrakastea ikusita, hurrengo pau-sua Herribas proiektua errealdade bihurtutea izango litzateke.

Herribas

Proiektuak, etorkinentzako lana eta bizilekua buztartzen dauan negozio proposamena da. "Arratian dago-zan baliabideak aprobetxetan ditu, gaur egun gure gizarteak daukan beharrian handienetako bateri erantzuna emoteko" eta Harrera Etxeetan dagozan ikasketarik eta ba-liabiderik bako gazteei gizarteratzeko aukerea eskaintzen jakie. "Baserian euren dendan salduko dabezan ba-razkiak, frutak, arrautzak... ekoiztuko dabez. Bai baserriko zein dendako beharginek proiektuko erabiltzai-leak izango dira, beti be, profesio-nal baten gidaritzapean".

Negozio planak erabiltzaile bakotzak urte bi inguru egingo dituala proiektuan estimatzen dau. Horren ostean, "lan mun-dura oinarrizko esperientzia eta formakuntzeagaz egingo dabe saltu, etorkizun oparo bat eregi-teko aukereagaz".



BEDIA

Hilaren 20an hasiko dira San Juan jaiak

Barikuan, hilak 20, 19:30ean, botako dabe Bedian jaien hasikerako txupina, eta horregaz eta Jone eta Jon Beringaren jatsiereagaz hasiko dira San Juan jaiak.

Erredakzinoa

Motorrak berotzeko, aurreko do-mekan, bagilaren 15ean be egon zan jai giroa XXIII. Eskulangintza eta Elikagaien Azokeagaz. Han, txakolin eta izozki eta garagardao artisauen dastaketea egon zan.

Bediako jaietako akaso mo-menturik bereziena, San Juan bezperako gauerdiko sua izango da. Musikaik be ez da faltauko, eta Akerbeltz eta Gauargi erro-meria taldeek animauko dabez gauak. Domekan, urteroko antxi-nako auto eta motorren erakus-ketea eta slaloma egongo dira, besteak beste.

Jaiei amaierera San Juan egu-nean, martitzena, 20:00etan emongo jakie txokolatea jan eta txupina botaz.

Bagilak 20, barikua

19:30ean, jaien hasikerako txupi-na, trikitixeagaz alaituta; Jone eta Jon Beringaren jatsierea. Sardinak. 21:30ean, Bediako Jauziri jantza taldea.

23:30ean, Playback-ak.

24:00etan, Altxa Porru erromeria taldea.

02:00etan, herri selfia. (Eroan zeozer berdea: kamisetea, txanoa, eskularruak...).

Bagilak 21, zapatua

12:00etan, Paella Lehiaketako hasikerea.

14:00etan, paellak aurkeztu.

17:00etan, bazkalosteko bingoa



18 urtetik gorakoentzat.

17:00etan, umeentzako tailerrak eta buruhandiak.

18:00etan, Mus Txapelketea Batzokiak antolatuta, 18 urtetik gorakoentzat.

22:30ean, Akerbeltz taldearen kontzertua.

02:00etan, Blessive DJ.

Gune morea, 17:00etatik

19:00etara eta 22:00etatik 05:00etara.

Bagilak 22, domekea

12:00etan, IX. Antxinako Auto eta Motorren erakusketea.

12:00etan, pintxo-potea txosne-tan.

16:00etan, VI. Bediako Slalom Club Automovilístico Bizkaia antolatuta San Lorenzo poligonoan.

18:00etan, Ganso & Cia konpainiaren Welcome and Sorry antzezlan.

20:30ean, Txapela Brava taldearen kontzertua.

Bagilak 23, astelehena

18:00etan, XXXVII. Briska Txapelketea. Bikotekide bat behintzat Bediako. Izen-emotea 8 euro bikoteko. 18 urtetik gorakoentzat. 19:00etan, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea.

20:30ean, tortillen aurkezpena.

21:00etan, herri afaria.

22:00etan, Gauargi erromeria taldea.

24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, martitzena

11:00etan, meza nagusia.

12:00etatik 14:00etara, umeen-tzako puzgarriak.

17:00etatik 19:00etara, umeen-tzako puzgarriak eta bitsa.

20:00etan, txokolatea eta jaien amaierako txupina.



DIMAKO UDALAK
JAI ZORIONTSU EUSKALDUNAK
opa dautsuez



Dimako Udala



HI TA NI BI
Dima

ARRATIA, UBIDE

Probaldia arrakastaz amaitu dau bideON proiektu pilotuak

BideON ARRATIANek hilebete batzuk barru ekingo deutso barriro jarduerari jagokozan administrazino eta lege izapideak bete eta gero. Izan be, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta Udalek zerbitzuari jarraipena emotea ebatzi dabe.



Erredakzinoa

Bagilaren 30ean, bideON ARRATIAN zerbitzuak bere proiektu pilotua zarratuko dau. Erabiltzaileek bikain balorau dabe zerbitzua: 5etik 4,9 puntu emoten deutsiez

zerbitzuari, 5etik 5 erabiltzaileagazko arreteari, 5etik 4,8 gidariari eta 5etik 4,9 erabilitako ibilgailuari. Erantzun positiboena, 65 urte-tik gorakoen kolektiboaren aldetik jaso dau. Ikasleen kolektiboak barriz, ez dau asko erabili bideON,

"beste garraibide erregular batzuk erabiltea gurago daua adierazo dau, beti be Arratiako eskualdean zehar maiztasun eta erabilgarritasun handiagoa eskaintzen badeutsee" azaldu dabe AUMtik.

Egindako bidaia

Probaldian, 2024ko zezeiletik oin arte, 10.000 bidaia baino gehiago egin ditu bideON ARRATIANek. Horreetatik %87 inguru 65 urte-tik gorako personek egin ditue, %7 desgaitasuna daukien edo menpekotasun egoeran dagozan personek, eta %6 ikasleek.

Udalerrika, bidaien %30 inguruk Igorreko udalerria izan dabe jatorri, %13k Dima, % 6,6k Artea, %6,5ek Lemoa, %5,3k Artea, %4,6k Zeanuri eta %3k Arantzazu, Bedia eta Ubide. Helmugei jagokienez, Igorre, Euskotrenen geraldakuz loturea dagoan Lemoa eta Dima izan dira eskualdean gehien eskatu diran lekuak.

ARTEA

Udalak Musiktopa Taberna ustiatzeko lizitazino prozesua zabaldu dau

Erredakzinoa

Arteako Udalak Musiktopa taberna eta jatetxea alokairuan ixteko, lizitazino prozesua zabaldu dau. Proposamenak bagilaren 26ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expgebizkaia3042863/es_doc/index.html estekan. Leku horretan bertan eskuratu ahal izango dira pleguak eta dokumentazino osogarria. Ez da onartuko bitarteko elektronikoko bidez aurkezten ez dan eskaintzarik.

Sukaldea guztiz ekipauta dago eta ostalaritzako espazio bakarra izango da tabernea eta jatetxea. Kontratua 5 urtekoa izango da eta beste urte biz luzatu ahal da. Alokairua 900 eurokoa izango da. Lehenengo urteko alokairu osoa (10.800 euro) kontratuaren hasieran ordaindu behar izango da eta bigarren urtea eta gero, hilero.

ZEBERIO

Zeberio III. Bardintasun Plana egiteko inkestak zabaldu ditue herritarren artean



Erredakzinoa

Igaz II. Bardintasun Planaren ebaluazinoa egin ostean, hirugarren plana egiteko prozesuari ekin deutso Zeberio Udalak. Lehenengo bileran izandako parte hartzea txikia izan zala-ta inkestak herri osoan zabalduten hasi dira. Ondoren, alkarrizketak egiten hasiko dira.

Plana egiteko, herritarren partaidetzea ezinbestekoa dala azpimarratu gura dau Nerea Garcia Rebollo Zeberio III. Bardintasun Teknikariak, eta herritar guztiak inkestak erantzutera konbidatu gura ditu. "Zeberio bidezkoago eta bardinago baterantza pausuak emoten dihardugu. Horregaitik, III. Bardintasun Plana landuten gabiz, andren eta gizonen arteko desbardintasunak egunerokotasuneko eremu guztietan (zaintza, enplegua, hezkuntza, osasuna, parte-hartze soziala, besteak beste) desagertu arazoteko bidean aurrera egitea helburu daukan proiektua. Baina plan hau herriko errealidadearen isla izateko, bizi-lagunen parte-hartzea ezinbestekoa da". Izan be, Bardintasun Planak Zeberio Udalaren errealidadea izan behar dau oinarri.

Plana garatzeko, datozan lau urteotan ekingo da ugari egingo dira, eta herritarren benetako beharizanak beteko dituen ekintzak ebatzeko, zeberioztarren erretziak, ekarpenak eta iradokizunak sano garrantzitsuak dira, lau urtetan eragina izango dabe-ta.

Arantzazu

Arantzazuko Udalak eta Jai Batzordeak

Jai askeak eta zoriontsuak opa deutsuez

INMOBILIARIA

Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurak, txaletak...

ARRATIako BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea - 94 631 80 04 - IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

ORTQMObILITY

Mendieta 1 · Lemoa BIZKAIA
946 738 203

GANGUREN psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

ARANTZAZU

Rebel Noise taldeak joko dau jaietan

Jaietako barikuan, Arrasateko punk-rock taldeak animauko dau gaua. Aurretik, MG taldearen oinordekoa dan Arratians rock eta reggae taldeak joko dau eta ostean Nonbait erromeria taldeak. Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da ordu txikietan eta goizaldean.



Erredakzinoa

Arantzazuk, barrikuntza moduan beroari aurre egiteko moduko jai egitaraua prestatu dau: bariku, zapatu eta domekan ur zezena egongo da-ta. Herrian arrakastea izaten daben Playback-a eta karaokea be ez dira faltauko, ezta zita gastronomiko ugari be. Jaien hasikerako txupina barikuan, hilak 27, 19:30ean botako dabe, baina ordurako herritarrak jai giroan murgilduta egongo dira, San Juan bezperako jaia, hilaren 26ko kopau, kontzertu eta pintxo potea-

gaz eta barikuan bertan txupinaren aurretik izango dan fanfarreagaz.

Bagilak 26, eguena

14:30ean, herritarrentzako kopaua. Izen-emotea hilaren 24ra arte udaletxean. 18:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak. 19:30ean, pintxo-potea Herriko Tabernan.

Bagilak 27, barikua

17:00etan, Futbito Txapelketako finalak frontoian. 19:00etan, Ardoa Barrura fanfarrea.

19:30ean, pregoia eta txupinazoa. Jarraian buruhandiak eta ur zezena. 20:00etan, euskal jantzak. 22:00etan, kontzertuak: Arratians, Rebel Noise eta Nonbait erromeria taldea. Jarraian, DJ Jonkas. 02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa.

Bagilak 28, zapatua

10:00etan, paelletarako izen-emotea eta mahai banaketeta. 12:00etan, ur zezena. 12:30ean, Txubelazo Txapelketeta. 14:00etan, paella eta tortillen aurkezpena. 16:00etan, Txapel Jaurtiketa Txapelketeta. 17:00etan, Elektrotuna Orkresta. 20:00etan, Playback-a. 22:00etan, karakokea.

Bagilak 29, domekea, San Pedro eguna

10:00etan, txistularien dianea. 10:30ean, mezea. 10:30etik 13:30era, jolasak eta puzgarriak frontoian danontzat. 13:00etan, ur zezena 13:30ean, kontzertua: Valdes (Kuba). 17:30ean, Ipar Zirko Trotamundos Konpainiaren eskutik. 18:30ean, Aita Mari Bingo solidarioa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Landa garapen agente bila dabiz Gorbeialden

Erredakzinoa

Gorbeialde Landa Garapen Alkartea Arratia-Nerbioi eskualdearen landa eremuko garapen sozioekonomikoa sustatzeko helburua daukan irabazi asmorik bako alkartea da. Areatzan dago bulegoa eta bertan lan egiteko behargin bila dabiz. Lan kontratu mugabakoa eskaintzen da eta urteko ordainsari gordina 35.159 eurokoa izango da. <https://www.campo-ochandiano.com/ofertas/detail/135126> estekan dago informazino osotua eta eskaintzan izena emoteko aukerea. Bagilaren 19ra arte jasoko ditue curriculumak.

Eginkizunen barruan, nekazaritzearen, basogintzearen, turismoaren, kulturearen eta abarren inguruko gaurko proiektuak aurrera atera eta barriak sortzea eta sustatzea dago. Horretarako, beharrezkoa izango da administrazino publikoakaz zein Gorbeialdegaz lan egiten daben erakundeakaz harremanetan jarri eta alkarlanean aritutea. Beraz foroak, batzarrak, mahai tematikoak eta azokak antolatu eta bertara joan beharko da, honeei jarraipena egin eta aktak hartu beharko ditu landa garapenerako agenteak. Horrezaz gainera, Gorbeialderen jarduerrei buruzko komunikazino estrategia bat egin eta abian ipin-

tea eskatuko da. Unibersidadeko ikasketak amaituta izatea eskatuten da eta nekazaritzearen, turismoaren, ingurumenaren edo ekonomia zientzien ezagutza eremuak lehenetsiko dira. Euskerazko C1 titulua izatea beharrezkoa da eta gazteleraz besteko hizkuntza batzuen ezagutzea be balorauko da. Ofimatikako ezagutza egiaztagarriak zein esperientzia egiaztatua izatea eskatuten da, bai eta mobiduteko eta joan-etorriak egiteko prestutasuna, "muga barik". Holan, B motako gidabaimena eta norbere ibilgailua euki behar dira. Balorauko diran beste gauza batzuen artean, Arratia-Nerbioin bizi edota lan egitea eta inguru ezetutea eta administrazino publikoaren eta honen politiken ezagutzea dira.

DIMA

Ruper Ordorikaren kontzertuak zarratuko dauz Dimako jaiak

Dimako jaietako hasikerako txupina, Gaztebarri Dantza Taldeak botako dau eta lau eguneko jaiari hasikerea emongo jako. Bagilaren 29an, bertsolariek eta Ruper Ordorikaren kontzertuak emongo deutsee amaierera jaiiei.

Erredakzinoa

Bitartean, beste gauza askoren artean, umeentzako jolasak, kontzertuak eta lehiaketak egongo dira. Suger, Altxa Porruru, Alarma Morea, Ganibet, Sustrai Berriak, Nevadah eta Trikiizio taldeek animauko dabez gauak. Bafle-poteoak, elektrotxarangeak, kantu taldeek eta DJak osotuko dabe jaietako musika eskaintzea. Gastronomiari jagokonean be Tortilla eta Paella Txapelketak eta herri afaria egongo dira. Ondo pasetako kuadrillen arteko jolasak be egongo dira, umorea eta lehia bermatuz.

Bagilak 26, eguena

18:00etan, kuadrillen arteko jolasak. 19:00etan, txupina. Gaztebarri Dantza Taldea. 19:30ean, bafle-poteoa. 21:00etan, herri afaria. 23:00etan, Suger takdearen kontzertua eta erromeria Altxa Porrugaz.

Bagilak 27, barikua

12:00etan, umeen jolasak. 14:00etan, jubiladuei omenaldia. 18:00etan, Jaietako Pelota Txapelketako finalak. 19:30ean, Xaukena elektrotxarangea.

23:00etan, Alarma Morearen kontzertua eta Ganibet-egaz erromeria.

Bagilak 28, zapatua

12:00etan, umeen jolasak. 13:30ean, Txipli-txapla otxotea. 13:30ean, Jt Kantuz eta Kresaltsu musika eta kanta taldea. 14:30ean, Tortilla Txapelketeta. 16:30ean, Mus Txapelketeta Aramotz Tabernan. 17:00etan, kuadrillen arteko jolasak. 18:30ean, LGTBIQA+ kolektiboaren sexu askapenaren eta harrotasunaren aldeko argazkia plazako eskaileretan. 19:00etan, Gotx elektrotxarangea eta taloak. 22:30ean, kontzertuak: Sustrai Berriak eta Nevadah; Trikiiziogaz erromeria. 23:45ean, zozketeta. 24:00etan, euskal errepresaliduen giza eskubideen aldeko ekitaldia plazan. 04:00etan, DJ Bendi.

Bagilak 29, domekea

11:30ean, mezea. 15:00etan, paellen aurkezpena. 18:30ean, bertsolariak: Oihana Bartra, Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal eta Ane Zuazubiskar. 21:00etan, Ruper Ordorikaren kontzertua.



MURALAK LEMOAN

Nazinoarteko mailako artistek egindako mural bi pintau dabez Lemoan

Lemoako sarreran, kamino ondoan dagozan etxe biko paretetan artelan barri bi dagoz. Bata, Medianeras bikoteak egin dau eta bestea gurean hain ezaguna dan Lianek, Cbloxx-egaz batera.

Erredakzioa

Aukeratutako lekua eta helburue-tako bat, Lemoari lotuta dagoan herri grisaren estereotipoagaz apurtzea dala dino Esther Iturrioz Lemoako alkateak. "Aukeratu dogu leku hau sarreran dagoa-lako. Sartzean zara herrian eta danok, zoritxarrez, ikusten dogun Lemoa grisa da. Horrerri aurre egiteko ebatzi genduan proiektu honegaz hastea".

Lemoa estetikoki aldatu eta artea herrira ekarteko helburua beteteko, munduko mural onenetako batzuk egin dituan Lian Monserrategaz ipini zan kontaktuan Udala. Onda-rron bizi dan artista, aurretik be Lemoan lan eginda egoan; berak egindakoa da-ta Kulturguneko mura-la. Proiektua mural bi egitea zan eta Lianek bat egitea onartu eban; bestea egiteko Medianeras bikotea proponidu eban.

Medianeras izenpean, jatorriz argentinarrak eta Bartzelonan bizi diran Anali Chanquia eta Vanesa Galdeano dagoz. Euren lanak 30 herrialdetako, 50 uri ingurutan ikusi daitezke; Vancouver (Ca-nada), Brisbane (Australia), edo Milanen, esate baterako; eta oin, Lemoan be bai.

Lau artistek egindako mural biek aurrekoen jakinduriaren transmisinoaren gaineko mezua bialtzen dabe. "Hormairudiek gure espazioak eta konzientziak eraldatzen lagunduten dabelako aukeratu zan proiektu hau. Arteak batzean gaitualako. Holan tradizi-noaren eta aldaketearen lekuko nortasunaren eta begirada kolekti-boaren alkarrizketa gune izango dira. Lemoaren sarrereari itxura atseginagoa, erakargarriagoa eta

garbiagoa emon jako, herriaren irudi biziagoa eta sortzaileagoa eskainiko dabe" azaldu deutso BEGITURI Lemoako alkateak.

Arlanpe, metamural bat

Lian Monserrate eta Jay Gilleard-en arteko lehen kolaborazinoa izan da Arlanpe koban inspirau-tako murala. Arlanpeko kobazu-loan, oin dala 17.000 urte inguru egindako irudiak topau ziran, Bil-boko Arkeologia Museoan dagoan Arlanpeko Dama izenagaz ezetu-ten dana da esanguratsuen. Harri bloke baten grabautako irudi hau, 2011n topau eban Joseba Rios-Garaizar arkeologoaren taldeak.

Muralean, ume batzuek begi-ratuten deutseez kobako irudiei.

Lian Monserrate eta

Jay Gilleard-en arteko

lehen kolaborazinoa

izan da Arlanpe koban

inspirautako murala.

Arlanpeko kobazuloan,

oin dala 17.000 urte

inguru egindako irudiak

topau ziran, Bilboko

Arkeologia Museoan

dagoan Arlanpeko Dama

izenagaz ezetuten dana

da esanguratsuen



"Jente gazteak iragana topetea-ren ideagaz egiten dogu olgetan hormairudi honetan. Arlanpeko kobazuloan dagozan marraz-kiak dira iragan hori. Eta holan, iragana, oraina eta etorkizuna batzean dira. Oin dala, 17.000 urteko grafitismoa edo muralis-moa oingokoagaz batzean da" azaldu deutso BEGITURI Lianek.

"Nire ibilbidean askotan egin dot behar harri formazinoakaz eta iraganagaz zerikusia daukanagaz, arbasoen memoria historikoa ekarriz" gehitu dau Cbloxx-ek.

Muralak zeozelango magia bat daukala dinoe egileek eta pare-ta dagoan lekuan, harria oinarri daukien elementuen arteko "ha-rreman bitxi samarra sortzean

da, harrobiak, zementu-fabrikea... ikusten diralako. Eta Arlanpeko kobazuloa be hor dago: lehenen-go asentamentuen lekuko". Eta magia hori kateatu egiten dala dinoe. "Magikoa da industriak gainbehera doazalako eta belau-naldi gazteenek deskubriduten dabelako aurreko industriak zelan bilakatu diran pintura", industria



Ekainak 28

Zutunik eta harro

LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna



Arantzazuko Udala



aek
euskaraz praktikoa

Udan ere euskaraz eroso

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ARRATIAKO AEK

- Ikastaro trinkoak uztailean eta irailean 100 ordu (5 ordu egunean)
- Maila guztiak
- Azterketak prestatzeko (B1, B2, C1)

Udalek eta HABEK diruz lagunduta
Matrikula epea, ekainaren 2tik 27ra

Elxalde 10, behea. IGORRE
94 631 56 57 · 607 632 916 · arratia@aek.eus

Informazio gehiago





litikoak, barbarako, horma baten errastoa itxita, hain zuzen be.

Atzenik, Arlanpekoa, metamurala dala azpimarratu gura dabe artistek. "Hemen pintura baten pintura daukagu; errepresantazino baten errepresentazinoa". Izan be, Arlanpeko Dama, andra baten errepresentazino prehistorikoa agertzen da muralean.

Edadeko andra baten begiradea

Ondoko etxe blokeko paretean egin dabe Medianeras-ekoek euren murala. Medianeras bikotea ezaguna da egiten dituan arpegi erraldoikaitik eta Lemoan be hola egin dabe. "Edadeko andra bat da, esperientzia, bizitza ibilbide bat, historia transmitiduten dauana. Personeak bizi egin daua- la igarri izatea gura genduan" dino Anali Chanquiak. Irudiak erropan, hemengo kultura eta historiagaz zerikusia daukiezan elementuak

daukaz; lauburua, tartean.

Teknikeari jagokonean anamorfo- sia erabili dabe. "Guk ikuspuntu bat aukeratzen dogu, kasu honetan bi- ribilgunetik, perspektiba sortzeako, eta arkitektureagaz egiten dogu olgetan, irudia hormaren barrutik urteten dalako sensazinoa emote- ko. Eta ikuslea ibiltzen danean dis- torsionetan doa andrearen irudia. Kasu honetan zugatz bat daukagu aurrean, eta beti alboz begiratzea da asmoa" dino Galdeanok.

Beraz, ikuslea mobiduten da- nean, aldatu egiten da ikusten dauana. "Ikuspuntu guztiak bale- koa dirala esateko modu bat da. Norberak interpretetan dauanaz edo guk erakutsi gura dogunaz harago, beti dagoz distorsino po- sibleak eta edertasunagaz be ze- rikusia daukien interpretazinoak. Hau da, figurazino errepresenta- tibo proportzional hegemonikoa ez ezik, ikuspuntuak, distorsinoak

eta deformazinoa be edertasun baten zati dira. Danok daukagu alde itxurabako eta formatuago hori, zeozelan esateko" gehitu dau Chanquiak.

Jentearen jakin-mina

Maiatzaren 28tik bagilaren 6ra arte egon ziran artistak mural bi honeek pintetan eta herriko jen- teak jakinguraz hurreratu eta euren lana pozik hartu dabela dinoe. "Izugarria izan da, zoragarria. Sano ondo pasau dogu. Jentea hurreratu jaku, galderak egiten eta jente asko ezetu dogu" dino Galdeanok. "Eta errepidetik joiazan kamioi eta ko- txeetatik bozinea jotzen dabe! Itzela da!" gehitu dau Lianek.

Alkatea be bat dator artistakaz. "Alkargune bat sortu da. Edade guztietako lemoaztarrak dagoz hurreratzeko begiratu eta komen- tetako". Izan be, arteak jentea ba- tzean dauala uste dau Iturriozek.



- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK



**94 631 72 57**

**ekin@ekinsl.eus**

**Igorre (Bizkaia)**

AREATZAKO DANBORRADAREN 50. URTEURRENA

Areatzako Danborradaren 50. urteurrena ospatuko dabe hilaren 21ean

1975eko abuztuan billaroztar talde bateri bururatu jakon Areatzan tanborrada bat sortu behar zala. Esan eta egin. Mende erdi bat pasau da harrezkeroztik eta inguruko herrietan antzekorik egon ez arren, bizi-bizirik dago. Herri erdia inguru pasau da Areatzako Danborradatik; ia tradizinoa da umeak Danborrada Txikin hastea, gero Areatzako Danborradara pasetako. Bagilaren 21erako, zapatua, jaia antolatu dabe 50 urteak ospatuteko. Egun horretan 130 lagun inguru ibiliko dira herrian tanborra joten.

Erredakzinoa

Eguerditik, gaua ondo sartu arte izango da jaia. Txupina 13:00etan botako dabe. Ostean poteo musikatuari ekingo deutsie Merhezi taldeagaz eta bazkaria egingo dabe 14:30an, alkarregaz. Iluntzean tanborren durundiak hartuko dau herria hainbat ordutan; 19:00etan, belaualdien arteko tanborradea hasiko da eta 21:30ean, tanborradearen bigarren buelteari ekingo deutsie. Gauean, tanborrak itxi eta jantzan egiteko aukerea izango dabe tanbor-joleek, 23:00etan erromeria egongo da Zutik taldeagaz eta 02:00etan, DJ Bertok ipini dau jantzarako musikea.

Jaiaren helburua "belaunaldiak batzea da, 50 urte honeetan Danborrada Nagusitik igaro garan danok batzea. Ez da erraza izango. Baina argi geratzea gura dogu, ez dala gaur egun Danborradan gagozanok ospatzen dogun zeozer, sortu zan momentutik gaur artera arteko guztiok ospatzen dogun urteurrena da" azaldu dabe Danborradakoek Areatza Lantzen aldikariari emondako alkarizketa baten.

Areatzako Danborradaren historia

1975eko abuztuan, herriko lagun talde bateri otu jakon Areatzan tanborrada bat sortu behar zala. Izan be, aurreko urteetan Areatzako Zalgurdi desfilea Araiako

Danborrada etorrita egoan, eta herriko tanborradea izateko go-goa sortu jakien. Beraz 20 tanbor erosi eta Jose Antonio Atxaren zuzendaritzapean, Sakramentinoetako frontoian entseguak egiten hasi ziran. Abuztuaren 30ean egin zan lehenengo desfilea.

Hasikerako tanborrada haretan danak ziran gizonak baina denpora gitxira, 1977an, andrek, eurek be Danborradan sartzeako proposamena egin eben. Proposamen hau aho-batez onartu zan ezelako oztopo edo arazo barik eta beraz, 15 kupel erosi ziran. Handik gitxira, beste 15 kupel erosi ziran. Handik aurrera, Danborrada antolatzen joan zan apurka-apurka eta kuota bat ipini zan: 25 pezeta astero, dirualdi bat! Entseguak Txirpis zineman egiten ziran. Komeriak pasau ebezan argiagaz eta lokalaren atontzeagaz.

1979an, Bilboko jaietako konparsen jatsieran hartu eban parte Areatzako Danborradak. 1983ko abuztuaren 26an Euskal Herri osoan uriola handiak egon ziran eta urte haretan tanborradea ez zan urten. Entseguak eta desfileak aurrera joaiazala, 1987an itxurea aldatu behar zala eta uniforme aldatu zan. Goizaldeko kalejirea be sartu zan gero, bigarren buelte deritxana.

1997an Danborrada Txiki sortu zan, umeek be tanborrak jotzen parte hartu ahal izateko, eta gaur arte jarraitu dau. 1998an, majoretteak sortu ziran eta 2015era

arte eurekaz batera egin zan desfilea.

2000. urtean 25. urteurrena ospatu zan. Zarautzetik ekarri ziran 200 tanbor eta herria bozgorailuz josi zan. 300 lagun batu ziran.

2006an eta 2009an Areatzako Danborrada Egunak ospatu ziran.

Oin dala urte bi aldaketa bat egin zan Danborradan; lehen txaranga bat kontratetan zan tanborradeagaz batera joteko, baina, oin, Areatzako Bandak egiten dau lan hori.

Aurton, Areatzako Danborradak 50 urte beteten ditu eta urtero parte hartu dau herriko jaietako desfilean, hiru urteetako salbuespenakaz: 1983an uriolakaitik eta COVID-a dala-ta hartutako neurriek jaiak ospatzeko aukerarik emon ez ebelako 2020 eta 2021 urteetan.

Beste herri askotan be jo dau Areatzako Danborradak 50 urte honeetan eta bidelagun asko euki ditu; besteak beste, Kaixo txarangea eta Areatzako Banda.

Herri erdia Areatzako Danborradatik pasau da

Partaideen esanetan, Areatzako Danborradak musika, durundia eta desfilea baino doe handiago bat dauka: integrazinoa. "Joteko asmoa euki dauan guztia onartu da beti tanborradan: neska edo mutil, bertakoa edo etorritakoa, herritarra edo bisitaria, edade guztietakoetakoak... Holan, herri

riko kuadrilla, jatorri eta belau-naldi desbardinaren artean zubiak ezartzea erraztu da, bai egunero beharizanetarako bai data bereziatarako. Gure herri hau

apur bat herritarragoa eginez" dino danborradan egondako kide batek. Tanborradatik, 500 edo 600 lagun inguru pasau dirala kalkuletan dabe: herri erdia.



Goian egungo irudi bat eta behean aspaldiko entsegu bat.



Ekainak 28

Aske maitatzeak gizarte osoa egiten dau libreago
LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna





Ubide

Jai batzordeak eta
Ubideko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez

Gora San Juanak!



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A

ENEKO

Eneko Atxaren Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonia: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.


HOTEL ORDUÑA PLAZA



B

HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN

astegoien pasa: gau bi,
zirkuitua, gosaria eta
masajea lagun birentzako.



PELOTEA

Izkander Torralba
igorretarrak Bizkaiko Lau
t'erdiko Txapelketea eroan
dau Kadete mailan

Erredakzioa

Bagilaren 6an Derioko pelotale-
kuan jokatu zan Kadete mailako
Bizkaiko Lau t'erdiko Txapelketearen
finala eta bertan, arratiar bi egon zi-
ran aurrez aurre. Lagun Onak klube-
ko Izkander Torralba igorretarra
eta Txumulueta klubeko Dorkaitz

Meabe dimoztarra izan ziran fi-
nalistak eta Igorrekoa urten zan
txapeldun, 22-6 irabazita. Lekuko
batek BEGURI kontau deusanez,
"txapelketa polit bat jokutetik eto-
zan biak" baina atzenean, Torralba
izan zan txapelketea biribildu eba-
na. Izan be, garaipen erosoan izan
zan igorretarrarentzat.



Dorkaitz Meabe urdinez eta Izkander Torralba gorriz.

TRONTZEA

Ruth Linaza herri kirolari
lemoaztarrak Euskadiko Trontza
Mistoko finala jokatu eban

Erredakzioa

Durangon, Landako Gunean jokatu
ziran hilaren 7an, Euskadiko Tron-
tza Misto eta Lasto Altxatze Tx-
apelketak. Trontza mistokoa, Ruth
Linaza Arratiako kirolariak hartu
eban parte Kimetz Lapazaranegaz
batera. Txapela Garbiñe Lopez de
Uraldek eta Ion Lapazaranek lortu
eban. Ruth Linazak eta Kimetz La-

pazaranek hirugarren egin eban.
Lehia estua izan zan. "Sano sensa-
zino onakaz geratu ginan. Momentu
batzuetan estua izan zan lehia. En-
trenteko aukera asko ez daukaguz
eta pozik geratu ginan egindako la-
nagaz. Dana emon genduan" azal-
du deutso BEGURI Linazak.
Garagarilaren 6an Aramaion, Ara-
bako Txapelketea jokatu da eta han
be parte hartzekoa da Lemoakoa.

LASTO BOTATEA

Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarra
Bizkaiko txapeldun lasto botaten

Erredakzioa

Bizkaiko Lasto Botatze Txapelketea
jokatu zan bagilaren 14an Arratzun
eta Jose Martin Bustinza "Tubi",
Dimako Txabila Klubeko kirolari
dimoztarrak lortu eban txapela.

6 metro eta 10 zentimetrora bota
eban lasto fardoa. Errekorra, oin dala
10 urte egindakoa, berak dauka 6
metro eta 70 zentimetrogaz.

Bigarren Beñat Obietak (Arra-
tzuko Piratak Herri Kirol Kluba) egin
eban 5 metro eta 20 zentimetrora
botata fardoa; hirugarren, Mikel
Agirre (Mallabiko Txondor Herri
Kirol Kluba) izan zan eta fardoak 5
metro lantzea gaintitu eban.

Euskal Herriko Txapelketako
18 txapel ditu dimoztarrak, jokatu
dauzan guztiak eta jokutako Biz-
kaiko guztiak be baditu, 2022koa
izan ezik, lesino bat dala-ta biga-
rren egin eban urte haretan. Urte
batzuetan Gipuzkoako Txapelke-
tea jokatu eban eta hango 3-4
txapel be baditu.



Ekainak 28



LGTBIQ+fobiarik bako gizarte bat gura dogu

LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna



Ubideko Udala



LGTBI+ HARROTASUN EGUNA

Bagilak 28

n A rro	B esarkatu
S entitu	ma I tatu
au K eratu	go Z atu
err E spetatu	I zan



MENDIA

Onditz Iturbek Espainiako Mendi Lasterketa Txapelketea irabazi dau

Bagilaren 8an jokatu zan Canfranc-en (Huesca) Mendiko Lasterketetako Espainiako Txapelketea eta Onditz Iturbe igorreztarra izan zan garaile, Munduko Txapelketarako auresailkapenerako txartela lortuz, lasterketa bakotzeko lehenengo biak auresailkatzen dira-ta.

Erredakzinoa

Bezperan, Uphill igokera bertikaleko proban bigarren egin eban. Buelta bardin bik osotuten eben hilaren 8ko lasterketako ibilbidea. Guztira 14 kilometro 775 metroko desnibelagaz. Punturik altuena 1.574 metrotara egoan eta Iturbek 01:18:07an gelditu eban kronoa. Bigarren Julia Font-ek egin eban (01:19:10) eta hirugarren Claudia

Estevezek (01:19:59). Hasieran, Estevez ipini zan lasterketearen buruan eta lehenengo buelta lehenengo postuan amaitu eban, igorreztarrari 15 segundo aterata. Bigarren bueltan, barriz, Iturbe ipini zan aurrean eta besteei aldea ateraten joan zan. Atzenean, irabazi egin eban proba, bigarrenari minutu eta erdi aterata. Gizonezkoetan Jan Torrella katalana izan zan irabazlea.

Uphill, igokera bertikalean, txapeldunorde
Bezperan, Espainiako Txapelketako igokera bertikala jokatu zan Canfranc-en eta hango podiumean be egon zan Onditz Iturbe. Proba Naiara Irigoyen nafarrak irabazi eban eta Iturbek bigarren egin eban. Rosa Larak osotu eban podiuma. Proba honetan be, mundialerako txartela lortu dau Igorrekoak.



FUTBOLA

Lemoako Harrobiren Batzar Nagusia bagilaren 24an Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzinoa

Lemoako Harrobi futbol taldeak hilaren 24an, arrastiko 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenean, bazkide guztiak deitu ditu Kotxepin egingo dan Ohiko Batzar Nagusira. "Klubarentzako momentu garrantzitsua da: norabidea ezetuarazoteko, ideak partekatzeko eta guztion artean gure Harrobiren etorkizuna eregitiko" dinoe euren sare sozialetan. "Zure parte-hartzea sano garrantzitsua da. Harrobi danon artean egiten dogulako. Zatoz eta parte hartu!" gehitu dabe.

Entrenatzaile, prestatzaile fisiko eta delegadu bila
Lemoako Harrobi taldeak datoren 2025-2026 denporaldirako entrenatzaileak, 2. entrenatzaileak, atezainen entrenatzaileak, delegaduak eta prestatzaile fisikoak behar ditu. Interesa daukanak curriculum bialdu behar dau eneko.coordinador@gmail.com helbidera. Informazino gehiago behar izan ezker 690 190 738 telefonora jo leiteke whatsapp bidez.



Lemoako Harrobiko Lurraldeko Jubenilen Lehen Mailako talde txapelduna.

MENDI MARTXEA

Zabalik dago Areatzako mendi martxetan izena emoteko epea

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 4an izango da Areatzako Mendi Martxearen 12. edizinoa eta izena emon ahal da www.rockthesport.com/evento/areatzako-mendi-martxa-2025 helbidean. Aurten be, igaz lez, hiru ibilbide dagoz aukeran; martxa luzea (27 km ingurukoa), ertaina (19 km ingurukoa) eta laburra 12 kilometrokoa. Izen-emotea urri lehenengoaren 25ean amaituko da eta martxearen egunean ezin izango da izenik emon. Hiru ibilbideakaz, jente gehiagok dauka aukerea Areatzako lehengo bideak ezetuteko. Izan be, horixe izan da Areatzako Martxearen helburuetako bat sortu zantetik, antxinako bideak errekupeau eta jenteari erakutsi. "Lan handia daukagu, garbiketa handia egin behar dalako, baina pena merezi-

du dau" azaldu deutso BEGITORI Xabier Iturriaga antolakuntzakoak. Aurten barrikuntza moduan izen-emotea egiten dan webgunean kamisetea bera bakarrik erosteko aukerea egongo da. Igaz 385 lagunek hartu eben parte eta aurtengoan plaza mugatuak ipini ditue. 400 lagunek hartu ahal izango dabe parte hiru martxetan.

Ibilbideak
Areatzako Gudarien Plazan batuko dira ibiltari guztiak, 08:00retan martxa luzea eta martxa ertaina egin behar dabenak. Plazatik bertatik abiatuko dira martxa luzea egin gura dabenak; ertaina egiteko barriz, Bikozganetik urtengo dira partaideak, baina Bikozganera joateko antolakuntzeak ipinitako autobusa hartuko dabe plazan. Martxa laburrekoek 09:00etan ekingo deutsie ibilbideari.



FUTBOLA

Luis Prieto Athletic-era

Erredakzinoa

Luis Prietok, Athletic-eko atzelaria izandakoak, akordioa lortu dau Athletic Club-agaz denporaldi batez gizonezkoen lehen taldeko prestatzaile fisikoa izateko. Jokalari ohiak sei denporaldiko esperientzia dauka Lezamako beheko mailetan (2014-2020), CD Basconiaraino helduz, eta hiru urtez ibili da LaLiga Hypermotioneko talde bitan, CD Mirandesen eta SD Eibarren, Joseba Etxeberria jokalaria ohi zuri-gorriaren taldean. IVEF-en lizentziaduna da dimoztarra. Ernesto Valverdek oso ondo ezetuten ditu Prieto eta bere lan egiteko modua. Izan be, erdiko atzelari moduan jokatu eban urte bitan bere aginduetara, 153 partiduko jokatu zituan lehoi moduan, sei denporalditan. Ez da egungo plantilleagaz daukan lotura bakarra. Izan be, Oihan Sancet, Aitor Paredes, Beñat Prados eta Nico Serrano jokalarien prestatzaile fisikoa izandakoa da. Prietok Arratia, Basconia eta Barakaldo taldeetan jokatu eban Bilbao Athleticera heldu aurretik. SD Eibarren egindako urte bi bikainei esker, Jupp Heynckesegaz debuta egin eban lehen talde zuri-gorrian. Athleticen ibilbidea bete ondoren, Valladolid CF taldean amaitu eban, Jose Luis Mendilibarren esanetara. SD Ponferradina eta Deportivo Alaves izan ziran bere atzen taldeak erretiroa hartu eta prestakuntza fisikoari ekin aurretik, baina urtebeteko tarte batean SD Leioako bigarren entrenatzaile moduan.



Luis Prieto.

KARTEL LEHIAKETEA

Areatzako Jaietako Kartel
Lehiaketarako lanak
aurkeztu daitekez

Erredakzinoa

Kartelak aurkezteko epea ga-
ragarrilaren 14an, ordu bietan
amaituko da. Areatzako Jaiak
2025. Abuztuaren 23tik 30era
testua derrigor agertu behar
da. Lanak Areatzako udaletxean
aurkeztu behar dira sinatu ba-
rik. Kartelak 59,6/42 cm-ko ta-
mainua eukiko dau, baina A3
paperean aurkeztu beharko da.
Kartel bakotxagaz batera eta

gutunazal itxi batean egilearen
datuak -izena eta abizenak, hel-
bidea eta hartu-emonetarako
telefono zenbakia- aurkeztuko
dira. Irabazleak, 150 euro eroan-
go dauz.
Epaimahaiak garagarriaren
14an berean jakinarazoko dau
irabazlea zein dan. Jaietako kar-
tel irabazlea argitaratzeko kon-
promisoa hartzean dau Jai Ba-
tzordeak eta jaietako liburuxkan
be agertuko da.



KALE ANTZERKIA

Atsoak
dantzan
umorezko
kale
ikuskizuna
Ubiden

Erredakzinoa

Bagilaren 23an, San Juan bez-
peran, 18:30ean, Pikor Teatro
Konpainiak *Atsoak dantzan* pu-
bliko guztiari zuzendutako umo-



EUSKEREA

Etorri euskarara! ikastaroa eskainiko
dabe Areatzan UEMAk, AEK-k eta
Udalak, euskeraz ez dakien gurasoen
beharretara egokituta

Erredakzinoa

Egitasmo hau Euskara eta kultu-
rartekotasuna udalerrri euskaldu-
netan proiektuaren harira sortu
zan. Badira lau urte UEMAk, HU-
HEZlgaz alkarlanean, Zaldibian
proiektu hori martxan ipini eba-
netik. Ekimenak harrera ona izan
dau, eta dagoeneko 40 herritan
da abian, euren artean Areatzan.
Proiektua martxan diran udale-
rrietan eskainiko dira *Etorri eus-
karara!* eskolak, Arratian Areatzan.
Egitasmoaren helburua da
euskeraz ez dakien gurasoek eus-
kerea modu praktikoan eta era-
ginkorrean ikastea, seme-alaben
ikastetxean bertan eta eskola-
orduetan. Horretarako, ziurtagi-

rietatik kanpo, AEK-k gurasoen
beharretara egokitutako meto-
dologia prestatu dau, helburu



honeekaz: seme-alaben ikasketa-
prozesuan bidelagun izateko ba-
liabideak izatea, gurasoen arteko
hartu-emonetarako oinarritzko
ezagutza eskuratzea eta euskerea
lehenesteko estrategiak garatzea,
euren eguneroko komunikazino
egoerak euskeraz izan daitezan.

Aurrematrikulea zabalik
Urri bigarrenean abiatuko dira
ikastaroak eta 150 ordukoak izan-
go dira. Astean saio bi eskainiko
dira, bina ordukoak. Ikastetxean
bertan eta eskola-orduetan eska-
iniko dira. Daborduko zabalik da
aurrematrikulea, bagilaren 27ra
arte. Izena emoteko aukerea dago
Areatzako eskolan zein online.
Ikastaroa doban izango da.

JAIK

San Juan suak biztu eta San Juan edo
San Pedro jaiak ospatuko dira auzoetan

Erredakzinoa

Sanjuanak, herriko jaiak dira Be-
dian eta Ubiden, baita hainbat
auzotan be. Igorreko San Juan
auzoan, Tallerretan Lemoan eta
Zeanuriko Altxuagan, barbarako.
Gainera, beste leku askotan legez,
Arratiako herrietan be suak biztuko
dabez San Juan eguneko bezperan
udako solstizioa ospatuteko.
Holan, Arantzazun barbarako,
sua prestatzen 18:30ean hasiko
dira, 20:00etan sardinak banan-
duko dira bertaratutakoen ar-
tean eta 22:00ak aldera biztuko
dira suak. Gauak aurrera egin
eta suak txikitu ahala, jentekak
salto egingo dau suaren gainetik,
antxinako errituari jarraituz.
Areatzan, 19:00etan, DAB Dan-
tza Konpainiaren *Noeud* jantza
ikuskizuna eskainiko da plazan eta
20:00etan, sardina jana egongo
da Zubizarran, sua biztu aurretik.
Artean, udako solstizioa eta San
Juan bezperea ospatuko dabe,
ospakizun bitan, Santamañen.
Hilaren 21ean, Kokomarroak tal-
dekoek deituta, jentea 19:00etan
batuko da jan-edana konpartidu-
teko bakotxak eroandakoagaz eta
20:00etan, sua isiotuko dabe bere
inguruan koplak kantau eta jantzan
egiteko. Eta 23an, barriro batuko
dira arteaztarrak Santamañen,
20:00etan, Udalak antolatutako

sardina jana egin eta suaren ingu-
ruan kantuan eta jantzan egiteko.
Lemoako Tallerreta auzoko
parkean, 19:30etik aurrera, udako
solstizio jaia prestatu dau Jai Ba-
tzordeak hilaren 23rako: umeen-
tzako ekintzak, janari eta edari sal-
mentea eta sua egongo dira urteko
gaurlak laburren ospatuteko.
Sanpedroak be, Arantzazu eta
Dimako jaiak izateaz gainera, au-
zune batzuetako jaiak be badira;
Undurragakoak, esate baterako.

Igorreko San Juan auzoko jaiak
Bagilak 22, domekea
12:00etan, jaien hasikerako txupina.
12:00etan, Marmitako Lehiake-
tarako izen-emotea.
13:00etan, Igel Txapelketea.
14:30etan, marmiten aurkezpena.
17:30etan, bingoa.
19:00etan, kontzertua: Joselu Anaiak.
20:30etan, txokolatea.
Bagilak 23, astelehena
17:00etan, *Arbasoen odolean*
zirkua ikuskizuna Lasarte Aretoan.
Tailerrak umeentzat Zaztaparrak
Asti Taldearen eskutik San Jua-
neko karpan.
18:30etan, arku-tiro ikuskizuna.
19:00etan, sardinadea. Bitar-
tean, Adiskideak fanfarrea.
22:00etan, San Juan sua eta suziarik.
Bagilak 24, martizena
12:00etan, mezea ermitan.
Ostean herriko trikitilariak.

Zeanuriko Altxuagako jaiak
Bagilak 21, zapatua
13:00etan, txupina.
14:00etan, auzo bazkaria.
Bagilak 22, domekea
11:30ean, mezea.
12:30ean, jantziarik.
Ostean, barauskarria eta zozke-
tea herriko txistulariakaz.
18:00etan, Bola Txapelketea.
Bagilak 23, astelehena
21:00etan, sardinak, txarri gi-
harrea eta txokolatea. Herriko
txistulariak.
Ostean San Juan sua.
Bagilak 24, martizena
13:00etan, mezea barauskarria-
gaz. Jaien amaiera.

Zeanuriko Undurragako jaiak
Bagilak 27, barikua
Jaien hasikerea eta txitxi-bur-
duntzia.
Bagilak 28, zapatua
11:30ean, Umeen Bola Txapelketea.
13:00etan, poteoa San Pedron.
14:30etan, auzo bazkaria.
18:00etan, Jainaga eta Narbaiza
trikitilariak.
Ostean danontzako jolasak.
Bagilak 29, domekea
12:00etan, mezea San Pedron.
Ondoren barauskarria eta poteoa.
18:00etan, VII. Undurragako
Bola Joko Txapelketea.
20:00etan, jaien amaiera,
txokolatea eta zozketea.

JANTZEA

DAB Dantza Konpainiak
Noeud ikuskizuna
eskainiko dau Areatzan



Erredakzinoa

San Juan bezperan, 19:00etan, DAB Dantza Konpainiak *Noeud* jantza ikuskizuna eskainiko dau plazan; Marina Eskisabel, Maddi Gaztelu-mendi eta Iker Sanz-en eskutik. Obrak askatasunaren garrantziaz hausnartzera konbidatzen gaitu, bere forma guztietan, adierazpen askatasunetik mobimentu askatasuneraino. Jantza ikuskizuna Areatzako Udalaren sanjuane-tako egitarauaren barruan dago. Ostean sardina-jana eta San Juan sua egongo dira Zubizarran. Jantza konpainiaren arabera, mobimentu eta askatasunean

oinarritutako bidaia da *Noeud*, "bere mobimentu arin eta adierazkorrek Chillidaren eta Balenciagaren irudi lerromakurrak ekartzen ditue gogora, eta, aldi berean, askapen indibidual eta kolektiboaren aldeko burrukea irudikatzen dabe". DAB konpainiak gizartearen-tzat garrantzitsuak diran eta gai sozial garrantzitsuei buruzko hausnarketea eta alkarrizketea sustatzen daben obrak sortzea dauka helburu. Gero eta globali-zauagoa eta interkonektuagoa dan mundu baten askatasunak daukan garrantziaz pentsetara konbidatzen gaitu lan honek.

BERTSOLARITZEA

Enara Gallastegi eta Ekhi Zuluagak Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finalean kantau eben

Erredakzinoa

Unax Aizpuruak irabazi eban Aran-tzan izan zan saioa eta herrialde guztietako 13 bertsolari ibili ziran kantuan. Bertsozale asko gerturatu zan eta giro ona gailendu zan. Enara Gallastegi dimoztarrek, Bizkaiko Eskolarteko Txapelke-tako txapeldunak eta Ekhi Zuluaga igorreztarrek, Bizkaiko txapel-dunordea aritu ziran kantuan. Zozketak holan ebatzita, ondo-rengo hurrenkeran ezarri ziran bertsolariak: Kattin Madariaga Apaolaza, Goizane Etcheverry Lopete, Enara Gallastegi Barre-netxea, Jokin Onaindia Elexpuru, Suhar Gesala Egiguren, Nahia Etcheverry Lopete, Amaiur Aiz-

puru Eskisabel, Egier Otegi Torres, Kattalin Lizarraga Mendia, Unax Aizpuru Ibargarai, Leina Alkhat Larrandaburu, Ekhi Zuluaga In-txaurbe eta June Asastegi Unzaga. Goizeko 11:30ean 13 gazteak oholtzarako bidea egin eben txalo artean. Bidea zabaltzen Ekhiñe Zapiain Arlegi eta Josu Txoperena Iribarren, biak ibili zi-ran aurkezten eta gaiak ipinten. Saioaren lehen atalean, binaka kantau eben. Lehenengo, gaia emonda, bertso bina abestu ebezan zortziko handian; eta, segiduan, bertso bina zortziko txikian. Honen ostean lehen ataleko lehen seirak egin eben aurrera, baina ez zan arratiarrik sailkatu bigarren atalerako.



Enara Gallastegi Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finalean.

MUSIKEA

Gorbeiatik Anbotora aurtengoan

Erredakzinoa

Igaz Arratian Anbototik Gorbeia- antolalatu eban Arratiako Musika Eskoleak Elorriokoagaz batera eta "lortutako arrakastearen" ostean, aurtun Gorbeiatik Anbotora egingo dabe Elorrioko Arriola Antzokian hilaren 21ean, arrastiko 19:00etan. Ikuskizun hau Elorrioko eta Arra-tiako Musika Eskolearen artean an-tolatu da eta eskola honeetako 90 ikasle gaztek parte hartuko dabe. Musikea izango da ardatza, baina bestelako elementu batzuk be agertuko dira eta horregaitik, "ko-laboratzaile bikainak izango doguz gugaz" dinoe musika eskolakoek. Honeek dira parte hartuko da-benak: Besaide Band & Gorbeia Ensemble, Lander eta Kimetz (Lor), Moonshine Wagon taldea, Goizeder Abendibar harrijaso-tzailea, Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalaria eta Elorrio eta Arratiako jantzariak.



DUNBA

Areatza eskolako Olinpiadak

Areatza eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Olinpiada txikiak: Gure proiektua. Azkeneko hilebetean gure proiektua Olinpiadak izan dira. Proiektua hau egiteko denporan zehar egin diran olinpiadak eze-tu eta aztertu doguz. Jatorrizko olinpiaden sorkuntzea K.a. 776. urtean izan zan, Greziako Olin-pia herrian sortu ziran eta Zeus Jainkoaren omenez egin ziran jokoak dira. Kuadriga lasterke-tak, burrukea, jabalina eta disko jaurtiketea, pentatloia lasterketea, luzeera jauzia jolasak ospatuten ziran bertan. Hainbat mendetan ahaztuta egon ondoren, 1890. urtean, Pierre de Coubertin ba-roiak Olinpiada modernoak sor-tzea ebazi eban. Lehenengo Olinpiada moder-

noak 1896. urtean Atenasen (Grezia) egin ziran. Olinpiada honeetara herrialde gitxi batzuk joan ziran eta gainera, kirolari guztiak gizonezkoak izan ziran. Ez zan izan hurrengo Olinpiadetara arte andrek parte hartu ahal izan ebela (Paris, 1900). Honezaz guztiaz gainera, garai barriko olinpiadak non eta noz

egin diran, zein herrialdek parte hartu daben, zein kirol egin diran, maskotak eta logoak, zein olin-piada ez ziran egin eta zergaitik, olinpiadetan egondako bitxike-riak... aztertu doguz. Hau abiapuntutat hartuta, Areatzako eskolan gure olinpia-dak LH-ko ikasle guztiakaz ospa-tzea ebatzi genduan. Gure olinpiaden kirolak auke-ratzerako orduan, olinpiadetako kirol batzuk zerrenda baten jarri genduzan. Bakotxak kirol bat aukeratu eban eta besteei auke-ratutako kirola azaldu eutsen. Holan, jakin genduan zein kirol egin eitekean gure olinpiadetan eta zein ez. Aukeraketa egin eta gero, bikoteka jarri ginan kirol bakotxa prestatzeko. Horren on-doren, olinpiadak antolatzen hasi ginan (egutegia aukeratu, mate-

riala prestatu, kirol bakotxa zein lekutan egingo dan aukeratu...) eta beste zikloko ikasleak parte hartzera konbidat genduzan. Areatzako Olinpiadak bagilaren 9tik 18ra dira. Hau izan da gure proiektua, es-pero dogu zuen gustukoa izatea.



AGENDEA

BAGILAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Garagarrilaren 14ra arte, jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea udaletxean.

Hilaren 27ra arte, UEMAk, AEK-k eta Udalak gurasoentzako antolatutako euskera ikastaroan izena emon daiteke *labur.eus/etorriEUS* helbidean edo eskolan.

Urri lehenengoaren 25era arte, Areatzako Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik *www.rockthesport.com/evento/areatzako-mendi-martxa-2025* helbidean.

ARRATIA

Hilaren 20ra arte, Arratek Informatikak 12 eta 16 urte bitartekoentzat antolatutako Udako Robotika Txapelketarako izen-emotea *labur.eus/robotika* helbidean. Informazio gehiago 94 601 17 72 telefonoan.

ARTEA

16:00etatik 20:30era, Arratiako Musika Eskolakoen piano maratonia plazan.

Hilaren 30era arte HAPO barria (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) eta dokumentazio osogarria jente-aurrean ipinteko epea. Alegazioak aurkezteko edo konsultak egiteko aurretiko hitzordua hartu behar da 94 673 92 05 telefonora deituta.

BEDIA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arreteak: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

HAPO erakusketea eta herritarren buzoia urri lehenengoaren 30era arte.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Podologia zerbitzua hilaren 27an. Izen-emotea udaletxean.

ZEANURI

Batxilera unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Garagarrilaren 4ra arte, jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus*-en. Kategoria bi: 18 urte arte eta 18 urtetik aurrera.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

BAGILAK 18
AREATZA

17:30ean, Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta, Kepa Lizarraga medikuntza doktorearen *Aholkuak bizitza osasuntsu baterako* berbaldia jubiladuen lokalean.

ARTEA

18:30ean, faktura elektronikoa irakurteko ikastaroa Kultur Etxean.

DIMA

16:30ean, plazako sarrerako zebrabidea koloreztatu.

ZEANURI

19:00etan, jaien inguruko bilera zabala udaletxeko pleno aretoan.

BAGILAK 19
AREATZA

08:30ean, Uparan Areatzako Jubilatu eta Pentsionisten Elkartek antolatuta, Comillas eta Santillana del Mar-era txangoa.

BEDIA

19:00etan, Uda Gaztearen batzarra liburutegian.

DIMA

18:30ean, Dimako jaietako protokoloaren gaineko batzar informatiboa udaletxean.

BAGILAK 20
BEDIA

Jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

Ludoteka zerbitzua zarratu urri lehenengoaren 8ra arte.

DIMA

19:00etan, Bariku txiki. *Frida* Abaroan.

IGORRE

19:00etan, Arratia Harrera Herria.

Persona Errefujiaduen Nazinoarteko Eguna. Konzentrazioa errotondan.

LEMOA

Kurso amaierako festa. 17:00etan, eskolaz kanpoko ekintzen erakustaldiak: gimnasia erritmikoa (kiroldegian), txikirritmoa, jantza modernoa, arte tailerra; 18:30ean, Esna Gazte! jantza-pistea.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

BAGILAK 21
AREATZA

Areatzako Danborradaren 50. urteurrena. 13:00etan, txupina; ostean, poteo musikatua; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, belaunaldiarteko tanborradea; 21:30ean, tanborradearen bigarren buelte, mozorroa: indioak eta bakeroak; 23:00etan, erromeria Zutik taldeagaz; 02:00etan, DJ Berto.

ARRATIA

19:00etan, Elorrio eta Arratiako Musika Eskoleak antolatuta Gorbeiatik Anbotora bidaia musikala Elorrioko Arriola Antzokian.

ARTEA

19:00etan, Kokomarroak taldeak antolatuta, udako solstizioa ospatuteko merienda autogestionaua eta 20:00etan, sua, Santamañen.

BEDIA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa. Autobus geraldian.

LEMOA

Sortu, Ernai eta LABek antolatutako

Independentzia Eguna. 11:00etan, kale apainketea; 12:00etan, Nikole Ziarrusta eta Iker Eizagirreren berbaldia *Taupada atzerakoia*ri aurre egiteko *Euskal Herriaren askapen prozesua* Kotxepin Kultur Etxean; 14:00etan, talde argazkia; 14:30ean, herri bazkaria; bazkalostean, umeen txokoa *Independentziaren etxea eraiki* eta kantaldia: Arbasoak taldea; 17:30ean, erromeria: Bilbao Anaia; 19:00etan, kalejira aldarrikatzailea; 19:30ean, kontzertua: Very Txarrak. Elizondon.

ZEANURI

Altzuagako San Juan jaiak. 13:00etan, jaien hasikerako txupina; 14:00etan, auzo bazkaria.

11:00etan, *Vidas irrenovables* dokumentala eta solasaldia zuzendariagaz Eguzkiolan.

ZEBERIO

07:30ean, Austarri Mendi Klubak antolatuta, Europako mendietan astegoiengaz.

BAGILAK 22
IGORRE

Jaiak San Juan auzoan. 12:00etan, jaien hasikerako txupina eta Marmitako Lehiaketarako izen-emotea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:30ean, marmiten aurkezpena; 17:30ean, bingoa; 19:00etan, kontzertua: Joselu Anaia; 20:30ean, txokolata.

ZEANURI

Altzuagako San Juan jaiak. 11:30ean, mezea; 12:30ean, jantzariak; ostean, barauskarria eta zozketea herriko txistulariakaz; 18:00etan, Bola Txapelketea.

BAGILAK 23
ARANTZAZU

18:30ean, San Juan sua prestatu; 20:00etan, sardinak; 22:00etan, sua isiotu.

AREATZA

San Juan. 19:00etan, DAB Dantza Konpainiaren *Noeud* jantza ikuskizuna plazan; 20:00etan, sardinak Zubizarra eta ostean sua.

ARTEA

20:00etan, sardina jana eta San Juan sua Santamañen.

IGORRE

Hilaren 27ra arte, 09:30ean, 2013 eta 2020 bitartean jaietako neska-mutilentzako Arratia Taldearen Udako Futbol Kanpua.

17:00etan, *Arbasoen odolean* zirku ikuskizuna Lasarte Aretoan. Tailerrak umeentzat Zaztapparrak Asti Taldearen eskutik San Juaneko karpan; 18:30ean, arku-tiro ikuskizuna; 19:00etan, sardinadea. Bitartean, Adiskideak fanfarrea; 22:00etan, San Juan sua eta suziak.

LEMOA

Hilaren 27ra arte, Lemoako Harrobiren Udako Kanpua.

Hilaren 27ra arte, herri udalekuak Gaztelekuan.

UBIDE

10:00etan, garagarrilaren 4ra arte Udal udalekuak.

ZEANURI

Altzuagako San Juan jaiak. 21:00etan, sardinak, txarri giharrea eta txokolata herriko txistulariakaz; ostean San Juan sua.

ZEBERIO

Garagarrilaren 11ra arte, 3 eta 6 urte eta 7 eta 11 urte bitartekoentzat udalekuak eta bagilaren 27ra arte, 12 eta 17

urte bitartekoentzat Gazte Udalekuak Lekarozen.

BAGILAK 24
IGORRE

Jaiak San Juan auzoan. 12:00etan, mezea ermitan; ostean herriko trikitilariak.

LEMOA

19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenetan, Lemoako Harrobiren Ohiko Batzar Nagusia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Altzuagako San Juan jaiak. 13:00etan, mezea barauskarriagaz; jaien amaierera.

BAGILAK 25
BEDIA

Liburutegiaren udako orduategia: astelehenetik barikura 10:00etatik 14:00etara, garagarrilaren 24ra arte.

BAGILAK 26
ARANTZAZU

Arantzazuko jaiak. Ikusi egitaraua 9. orrialdean.

ARTEA

18:30ean, Kepa Lizarragaren berbaldia Kultur Etxean.

17:00etan, Kafrangak taldeak antolatuta, LGTB IQA+ Harrotasunaren, Sexu Aniztasunaren eta Askatasunaren Nazinoarteko Egunagaitik Kakorratz topaketea.

DIMA

Dimako jaiak. Ikusi egitaraua 9. orrialdean.

BAGILAK 27
ARANTZAZU

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa. Autobus geraldian.

ZEANURI

Undurragako jaiak. Jaien hasikerea eta txixi-burduntzia.

BAGILAK 28
ARTEA

12:00etan, Kafrangak taldeak antolatuta, LGTB IQA+ Harrotasunaren, Sexu Aniztasunaren eta Askatasunaren Nazinoarteko Eguna dala-ta, egindako kakorratz lanakaz plazea apaindu.

DIMA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa. Autobus geraldian.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 11:30ean, Umeen Bola Txapelketea; 13:00etan, poteoa San Pedron; 14:30ean, auzo bazkaria; 18:00etan, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak; ostean danontzako jolasak.

BAGILAK 29
DIMA

10:00etan, Gorbeia Helmuga Turistikoak antolatuta, bisita gidatua Baltzolan. Erreserbak *www.gorbeiaeskadi.com* webgunean.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 12:00etan, mezea San Pedron; ondoren barauskarria eta poteoa; 18:00etan, VII. Undurragako Bola Joko Txapelketea; 20:00etan, jaien amaierera, txokolata eta zozketea.

BAGILAK 30
BEDIA

Garagarrilaren 11ra arte, Txiki Txoko eta udaleku irekiak.

DIMA

Garagarrilaren 4ra arte, udaleku irekiak.

Artxibo biluzia, konferentzia performatiboa eta antzerkia dakarre Lemoara

Bagilaren 21ean, 20:00etan, Metrokoadroka Sormen Laborategiak, "konferentzia performatibo eta antzerkia" lez definiduten dauan *Artxi-bo biluzia* lana eskainiko dau Kotxepin Kultur Etxean.

Joan Mari Torrealdaik Euskaldun Egunkariaren Administrazio Kontseiluko presidentea atxilotu ebenean, poliziak bere etxetik dokumentu zenbatezinak eroan ebazan. "Ordenauta egoana desordenau, armairu eta txoko guztiak miatu, milaka dokumentu eta paper eroan. Begirune barik. Eta zehaztu edo deskribidu barik. Inpotentziarik handienagaz ikusten neban zelana jardun eben hondatzen nire bizitza eta lan profesionala, nire ikerketak, nire etorkizuna. Biluzik itxi ninduen, ez fisikoki, bai intelektuali", kontauko eban Torrealdaik beranduago.

"*Artxibo biluzia* piezea sortzeako egun haretan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dogu, eta baliabide eszenikoakaz beteten saiatu gara, geure buruari eta publikoari galdera hau eginez: Zer istorio gura zeunke historiara pasetea?" dinoe Metrokoadrokako artistek.

Metrokoadroka Sormen Laborategia Oiartzun eta Errenteriako artista sare batek sortu eban 2008an, arte eszeniko eta arte plastikoko proiektuak sortu eta bultzatzeko, esperimentazioari eta espiritu kritikoari lehentasuna emonez.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixtinez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

EMOTEN DOT

56 m³ lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar

batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Kontatuko telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

LANA

BEHARGINA BEHAR DOGU

Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bana.

2 Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Artxibo biluzia* antzezlanerako.

Eneko Etxebarria (Agurain)
 Iñigo Atutxa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26



BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA

94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tel.: 94 631 92 00



GORBEIALDE
 LANDA GARAPENA
 ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
 GARAPENEAN LAGUNTZEN

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia

Tel.: 94-673-70-87
 Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejatetxea@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83






IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



Areatzako Udala Ayuntamiento de Areatza

Ekainaren 28a
LGTBIQ+ Askapenerako Nazioarteko Eguna
Gora aniztasuna!



DANOK ZUTAZ HARRO

artea udala